# Zumaiako Musika Jaialdia

2020 // 36. edizioa

## Aurkibidea


Zumaiako Musika Jaialdia 2020. Zaindu osasuna, zaindu kultura....3

Uztailak 30.... 4

XVIII. Klarinete Maratoiko laukote irabazlea....4

ZUMB Musika Banda....6

Uztailak 31.... 8

San Pedro abesbatza....8

Abuztuak 2.... 10

Sapere Aude Sinfonietta....10

Abuztuak 3.... 13

Organoa eta txistua....13

Abuztuak 6.... 17

Conductus Ensemble: 'Bach ispiluan'....17

Abuztuak 8.... 19

Musikaldian dantza....19

Abuztuak 9.... 22

Oreka TX....22


Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

# 36. ZUMAIAKO MUSIKA JAIALDIA 2020



## UZTAILA · JULIO

**30 osteguna, jueves**

13:00 *Torreberrin*
**XVIII. Klarinete Maratoiko laukote** lehiaketako irabazlea

19:30 *Santiago Etxean*
**ZUMB Musika banda**

**31 ostirala, viernes**

20:00 *Parrokian*
**San Pedro abesbatza**

## ABUZTUA · AGOSTO

**2 igandea, domingo**

19:30 *Zumaiena aretoan*
**Sapere Aude Sinfonietta**
**ENIGMA VARIATIONS** for chamber orchestra (Elgar / Morton)
**SYMPHONIC DANCES** for chamber ensemble (Rachmaninoff / Farrington)
**Alain Ayerdi,** zuzendaria

**3 astelehena, lunes**

20:30 *Parrokian*
Donostiako Hamabostaldiko organo zikloa:
**Mari Karmen Azpeitia eta Garikoitz Mendizabal,**
organo eta txistua

**6 osteguna, jueves**

20:30 *Parrokian*
Donostiako Musika Hamabostaldia: **Conductus Ensemble**
"BACH ISPILUAN"
**Andoni Sierra,** zuzendaria

**8 larunbata, sábado**

19:30 *Odietan*
Musikaldian dantza: **Lasala**ren "FIGHT"
**Myriam Perez Cazabon**en "NIRE AZALEAN ARROTZ"

**9 igandea, domingo**

19:30 *Herri eskolako frontoian*
**OREKA TX**

Gipuzkoako Foru Aldundia · GOAZ KULTURA
Donostiako Musika Hamabostaldia · Quincena Musical de San Sebastián
Zumaiako Udala · ZUMAIA BIZITZEKO DA

# Zumaiako Musika Jaialdia 2020. Zaindu osasuna, zaindu kultura

Uztailaren 30ean hasiko da aurtengo Musika Jaialdia. Musikaz (eta dantzaz) gozatzeko aukera ederra izango dugu, baina ezinbestean segurtasuna eta osasuna zainduz egin beharko dugu aurten (maskarak jantzita eduki beharko ditugu, distantzia gorde, esandako tokian eserita egon beharko da…)

Sapere Aude Sinfoniettaren kontzertua ezik, ekitaldi guztiak doan izango dira, baina gonbidapenak hartu beharko dira aurrez. Sarrerak eta gonbidapen guztiak uztailaren 29tik aurrera eskuratu ahal izango dira Turismo Bulegoan (ekitaldi bakoitzerako bi gonbidapen jaso ahal izango ditu pertsona bakoitzak).

Gozatu dezagun musikaz, eta zaindu ditzagun osasuna eta kultura.

*El Festival de Música de Zumaia comenzará el 30 de julio. Tendremos una buena oportunidad de disfrutar de la música (y de la danza), pero tendremos que hacerlo manteniendo las medidas de prevención y cuidando la salud (será necesaria la utilización de la mascarilla, mantener la distancia entre las personas o permanecer en el asiento asignado, etc.).*

*Salvo el concierto de Sapere Aude Sinfonietta, todos los actos serán gratuitos, pero será necesario recoger las invitaciones previamente. Las entradas y las invitaciones se podrán adquirir en la Oficina de Turismo a partir del 29 de julio.*

*Disfrutemos de la música y cuidemos la salud y la cultura.*

Uztailak 30

# XVIII. Klarinete Maratoiko laukote irabazlea

**13:00 | TORREBERRIN**



XVIII. Klarinete Maratoiko laukote irabazlea: XANA LAUKOTEA

## Egitaraua:

1. West side story
2. Sonata Solm
3. Shalom & Klezmer
4. 4 slavonic dances
5. Cartoon memories
6. Russiche
7. Klezmer

## Klarinete Maratoia:

Klarinete Maratoia Zumaian antolatzen den hezkuntza-egitasmoa da. 2002an sortua, klarinetearen zabalkundea eta irakaskuntza ditu helburu nagusi. Carlos Casadò musikari eta irakasle bikainari esker, edizioz edizio klarinetearen goi mailako irakaskuntzaz gozatu ahal izan dute Klarinete Maratoira hurbildu diren 900 ikasle baino gehiagok.

*Klarinete Maratoia es un original proyecto educativo que se celebra anualmente desde el año 2002 en Zumaia (Gipuzkoa) y tiene como objetivo principal la difusión y estudio del clarinete de una manera singular. El camino realizado lo largo de 17 ediciones ha demostrado que se trata de una actividad sustentada sobre unos fuertes cimientos. Edición tras edición los más de 900 alumnos que han participado durante todos estos años han podido disfrutar de la inestimable labor del músico y profesor Carlos Casadó.*



# ZUMB Musika Banda

UZTAILAK 30 | **19:30 | SANTIAGO ETXEAN**

Momentu honetan bizi dugun egoerak baldintzatuta, Zumaiako Udal Musika bandak ganbara formatuko musika emanaldia eskainiko du. Besteak beste A. Piazzolla, J. Williams, L Schifrin edo eta H. Zimmer konpositoreen obrarik ezagunenak entzuteko aukera izango dute ikusleek, Santiago Etxeko loratEgian.

*La Banda Municipal de Música de Zumaia ofrecerá una actuación musical en formato pequeño. Los y las espectadoras podrán escuchar las obras más conocidas de compositores como A. Piazzolla, J. Williams, L Schifrin o H. Zimmer, entre otros, en el jardín de la Casa de Santiago.*



## Egitaraua:

- Star Wars "Throne Room theme", J. Williams
- Mission Impossible, L. Schifrin
- La boda de Luis Alonso, G. Gimenez

- Oblivion, A. Piazzolla
- Harry Potter, J. Williams
- La Bikina, R. Fuentes
- Libertango, A. Piazzolla
- La vita e bella, N. Piovani
- Cinema Paradiso, E. Morricone
- Gladiator, H. Zimmer

## Uztailak 31

# San Pedro abesbatza

**20:00 | PARROKIAN**

## Egitaraua:

Hitzak eta doinuak modu estu batean lotzen direnean gure barrenak mugitzen dira: poza eta oinazea, kezka eta bakea, atsekabea eta maitasuna... Sentimenduak azken finean. Mendeetan zehar artearen bitartez azaleratu direnak eta gaur, hainbat adibide ezberdinekin, zuen eskura jarri nahi ditugunak. XVI. mendetik gaur artean idatzitako musika izango duzue entzungai, ahots ezberdinak uztartuz espazio berean.

*Cuando música y letra se unen en un modo estrecho suele moverse algo en nuestro interior: alegría y dolor, preocupación y paz, pesar y amor... sentimientos, a fin de cuentas. Los cuales han sido puestos a flor de piel gracias al arte y que hoy queremos poner a vuestro alcance con diversos ejemplos. Música escrita desde el siglo XVI hasta la actualidad y que podrá ser escuchada, enlazando voces en un mismo espacio.*

I

| | | |
|---|---|---|
| • Ave Verum | Karl Jenkins | (1944) |
| • Stabat Mater | Joseph Rheinberger | (1839-1901) |
| • I will sing with the Spirit | John Rutter | (1945) |

II

| | | |
|---|---|---|
| • Come again | John Dowland | (1563-1626) |
| • Prado verde y florido | Francisco Guerrero | (1528-1599) |
| • Loa, loa | Herrikoia (Mold: Iker Gonzalez) | (1976) |
| • Barcarola | Beatriz Corona | (1962) |
| • Gala del día | Carlos Guastavino | (1912-2000) |
| • Quién fuera como el jazmín | Carlos Guastavino | (1912-2000) |
| • Sure on this shining night | Morten Lauridsen | (1943) |

| | | |
|---|---|---|
| • Gure bide galduak | Benito Lertxundi<br>(Mold: Xabier Sarasola) | (1942)<br>(1960) |
| • Kitolis | Luis Aramburu | (1905-1999) |



# San Pedro abesbatza:

Zumaiako parrokia-korutik eratorria, 1984an sortu zen San Pedro abesbatza. Geroztik, musika-estilo asko landu ditu Euskal Herrian eta gure mugetatik kanpo eman dituen kontzertu ugaritan. Herriko ondare musikala berreskuratu eta zabaltzeko asmoa du, baita gaur egungo euskal musikagileen lanak ezagutaraztekoa ere. Guzti honen lekuko iaz eskainitako bi ikuskizun, batetik Astindu Dantza Taldeak sustatutako Queen taldearen inguruko muntaia eta bestetik bertsoak eta musika uztartu zituen “Doinu zahar, kantu berri” ikuskizuna Trio Zukanekin eta Amets Arzallusekin batera.

*Fundado en 1984 a partir del coro parroquial de Zumaia, San Pedro Abesbatza canta diferentes estilos musicales y ha ofrecido multitud de conciertos tanto en Euskal Herria como fuera de nuestras fronteras. Uno de sus objetivos es la recuperación y la difusión del patrimonio musical de Zumaia. Asimismo, presta especial atención a la música de los compositores vascos actuales. Muestra de ello dos actuaciones ofrecidas el año pasado, por un lado el espectáculo impulsado por Astindu Dantza Taldea con música de Queen y por otro el montaje que bajo el título “Doinu zahar, kantu berri” unió música y bertsos con la participación del Trío Zukan y Amets Arzallus.*

Abuztuak 2

# Sapere Aude Sinfonietta

**19:30 | ZUMAIENA ARETOAN**

Zuzendaria: ALAIN AYERDI



## Egitaraua:

- **EDWARD ELGAR:** ENIGMA VARIATIONS FOR CHAMBER ORCHESTRA (ARR GEORGE MORTON)
- **SERGEI RACHMANINOFF:** SYMPHONIC DANCES FOR CHAMBER ENSEMBLE (ARR: IAN FARRINGTON)

Datorren abuztuaren 2an, Zumaiako Nazioarteko XXXVI. Musika Jaialdiaren barne, eta jaialdiko orkestra egoiliarra bezela, *Sapere Aude Sinfonietta*ren kontzertu ederra izango dugu. Kontzertua Zumaiena Ikastetxeko Antzokian izango da 19:30ean eta Elgarren *Enigma Variations* eta Rachmaninoffen *Symphonic Dances* izango dira entzungai, George Morton eta Ian Farringtonek eginiko ganbara bertsioetan, Alain Ayerdiren zuzendaritzapean.

COVID-19ak sortu duen egoerak, programazioak egokitzera behartu du kasurik onenean, kontzertu honetan izan den bezala. Eta aldaketa horren ondorioz, XVI. mendeko ohitura batean murgildu gara: jatorriz talde haundi baterako idatzitako konposizioak talde txiki baterako edo tresna bakar baterako egokitzea. Geroago, klasizismoan, modan jarri ziren obra sinfonikoak pianoarentzako egokitzea, eta horrela kontzertuan gozatu zutenek gozatzen jarraitu zezaketen beren etxeetan. Antzokietan arrakasta zuten opera-arietako orkestra-zatiak ere, egokitzen ziren. Baita kaleetan aritzeko Harmoniemusik taldeekin (haize-instrumentuen taldeak). XIX. mendean mantendu zen moda honek beste dimentsio bat hartu zuen, Liszt edo Beethoven bezalako konpositore handiek teknika hori erabili zutenean. Eta XX. mendearen hasieran, *Verein für musikalische Privaufführungen*-en (Schönberg-ek Vienan sustatu zuen

elkarte historikoa) antolatzen zituen kontzertuetan musika garaikidea zabaltzeko moldaketa interesgarriak egin ziren, egun  kontzerturako errepertorio gisa mantentzen direnak.

*Enigma bariazioa*k Elgarrek hurbileneko lagunei egindako erretratu intimoak dira, 1899an osatu ziren eta konpositorearen lan goraipatuenetako bat dira. G. Mortonek egindako obraren egokitzapen hau talde txikiarentzako dago antolatuta, baina, aldi berean, orkestra sinfoniko oso baten handitasunari eusten dio. Hasiera fin eta xumetik hasi, *Nimrod* epiko eta handienera arte, abiadura bizia duen amaierarekin. Orkestrazioaren helburua Elgarren jatorrizko lanaren distira eta berotasuna mantentzea da.

Rachmaninoffen *Dantza Sinfonikoek* konpositorearen estiloaren erromantizismo oparoa eta egitura zehatza eta energia erritmikoa konbinatzen dituzte. I. Farringtonen moldaketa honen helburua  orkestra irudi oso bat sortzea da, talde txikiagotik abiatuta, Rachmaninoffen partiturako musika-tresnak bakarrik erabiliz. Banakako lerroen argitasuna entzuteak partituraren alderdi ezkutuak ezagutaraz ditzake, interpretazio  eta entzumen-esperientzian intimitatea gehitu dezake, eta lan hau leku txikiagoetan eskaintzeko aukera eman dezake, … moldaketen jatorria den bezala.

*El próximo 2 de agosto, en el marco de la XXXVI edición del Festival Internacional de Música de Zumaia, y como orquesta residente del festival, Sapere Aude Sinfonietta ofrecerá un fantástico concierto.*
*En el concierto será a las 19:30h en el Teatro del Colegio Zumaiena y se escucharán las Enigma Variations de Elgar y Symphonic Dances de Rachmaninoff, en las versiones de cámara de George Morton e Ian Farrington bajo la dirección de Alain Ayerdi.*

*La situación generada por el COVID-19 ha obligado, en el mejor de los casos, a adecuar programaciones, como ha sido el de este concierto. Y este cambio ha originado sumergirnos en una costumbre que ya se daba en el siglo XVI: la reducción de composiciones originales para un conjunto amplio adecuándolas para un grupo más reducido o para un solo instrumento. Más tarde, en el clasicismo, se pusieron de moda adaptar las obras sinfónicas para piano y de esta manera aquellos que habían disfrutado en el concierto podían continuar gozando en sus domicilios. Así como partes orquestales de las* arias *de* ópera *que triunfaban en los teatros. O también incluso, las interpretaciones en las calles, de la mano las Harmoniemusik (grupos de instrumentos de viento). Esta moda que se mantuvo en el siglo XIX, alcanzó otra dimensión cuando grandes compositores como Liszt o Beethoven emplearon esta técnica. Y ya a principios del siglo XX, fueron fruto de la actividad de la Verein für musikalische Privataufführungen, la histórica asociación promovida por Schönberg en Viena con la finalidad de difundir la música coetánea, llevándose a cabo interesantes reducciones que se cuentan entre las pocas que se mantienen como repertorio concertístico.*

*Cuenta que las Variaciones Enigma, son retratos íntimos que Elgar hizo a sus amistades más cercanas, se completaron en 1899 y son una de las obras más alabadas del compositor.*
*Esta adaptación de la obra realizada por G. Morton, está organizada grupo reducido, pero al mismo tiempo conserva la grandeza de una orquesta sinfónica completa. Desde los comienzos delicados y simples, hasta el épico y grandioso Nimrod, y el final a toda velocidad, la orquestación tiene como objetivo mantener el brillo y la calidez de la escritura original de Elgar.*

*Las Danzas Sinfónicas de Rachmaninoff combinan el exuberante romanticismo del estilo anterior del compositor con una estructura concisa y energía rítmica. Este arreglo de I. Farrington tiene como objetivo crear una imagen orquestal completa a partir de un conjunto más pequeño, utilizando solo los instrumentos de la partitura de Rachmaninoff. Escuchar la claridad de las líneas individuales puede revelar aspectos ocultos de la partitura, agregar una intimidad en la experiencia de interpretación y audición, así como permitir que este trabajo pueda ofrecerse en lugares más pequeños, ...tal y como es el origen de las reducciones.*

Abuztuak 3

# Organoa eta txistua

**20:30 | PARROKIAN |** DONOSTIAKO HAMABOSTALDIKO ORGANO-ZIKLOA





## **Garikoitz Mendizabal,** txistua eta silbotea

Zestoan (Gipuzkoa) jaio zen 1973ko azaroan. Goi Mailako Gradua du Txistuan eta Karrera Amaierako Ohorezko Saria lortu zuen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Hainbat txistulari lehiaketa irabazi ditu eta musika-talde ospetsuekin egin du lan baakrlari moduan: Madrilgo Erkidegoko Orkestra Sinfonikoarekin, The Bratislava Symphony Orchestrarekin, St Petersburg State Symphony Orchestrarekin, Bartzelonako Liceuko Orkestrarekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, Hego Koreako Chun Cheon Philarmonic Orchestrarekin eta Gyonbook Philarmonic Orchestrarekin eta Madrilgo Udal-Bandarekin, esate baterako.

Folk musika-taldeekin ere kolaboratzen du, besteak beste Korrontzirekin, eta Carlos Nuñez eta Kepa Junkeraren mailako artistekin hainbat musika proiektu gauzatu ditu.

*Nace en Zestoa (Gipuzkoa) en noviembre de 1973. Premio de Honor fin de carrera y Graduado Superior en Txistu por el Conservatorio Superior de Música de San Sebastian.*

*Ha sido laureado en varios concursos de txistularis y ha actuado como solista con agrupaciones de gran prestigio: la Orquesta Sinfónica de la Comunidad de Madrid, The Bratislava Symphony Orchestra, St Petersburg State Symphony Orchestra, Orquesta del Liceu de Barcelona, Orquesta Sinfónica de Euskadi,*

*Bilbao Orkestra Sinfonikoa, las Chun Cheon Philarmonic Orchestra y Gyonbook Philarmonic Orchestra de Corea del Sur o la Banda Municipal de Madrid destacan entre otras.*
*También colabora con grupos de Música Folk como Korrontzi, además de compartir escenario con artistas de la talla de Carlos Núñez o Kepa Junkera y en diferentes proyectos musicales.*

## **Mari Karmen Azpeitia,** organoa

Pianoko goi mailako ikasketak Rosa Mª Zarate eta Jose Antonio Medina Labrada irakasleekin amaitu zituen, eta goi mailako organo ikasketak Esteban Elizondo katedradunarekin, Donostiako kontserbatorioan. Musika zahar eta erromantikoari buruzko ikastaroetara joan da.
Organista gisa, Gipuzkoako Organoen kontzertuen zikloetan parte hartu du hainbat herritan, Tolosako Musicaria 98ren inaugurazioan eta Donostiako Musika Hamabostaldian, organo zikloak Nemesio Otaño S.J.ri egin zion omenaldian.
Organista da Zumaiako parrokian, eta San Pedro Abesbatzaren eta Beheko Plaza Abesbatzaren emanaldietan laguntzen du, bai bere herrian, bai herritik kanpo, eta kontzertuak eman ditu beste musika tresna batzuekin batera.

*Finaliza los estudios superiores de piano con los profesores Rosa Mª Zarate y el catedrático Jose Antonio Medina Labrada, y los estudios de órgano superior con el catedrático Esteban Elizondo en el Conservatorio de Donostia. Ha asistido a cursos de música antigua y romántica.*
*Como organista ha participado en los ciclos de conciertos de Órganos de Gipuzkoa en numerosas localidades, en la inauguración de Musicaria 98 en Tolosa y en la Quincena Musical de S. Sebastián dentro del homenaje que el ciclo de órgano rindió a Nemesio Otaño S.J.*
*Es organista en la parroquia de Zumaia, y acompaña las actuaciones del Coro San Pedro y Beheko Plaza Abesbatza en eventos y conciertos tanto en su localidad como fuera de ésta. Ha ofrecido conciertos también junto a otros instrumentos.*

## Egitaraua:

Organoa eta txistua, haizearen soinuak... Askotan mundu ezberdinetako parte bezala ikusi ditugu: seriotasuna eta eliza batetik, alaitasuna eta festa bestetik. Gaur, ordea, beraien soinuak uztartuko dira, elkarrizketan eta elkar entzunez. Beraientzat idatzitako musika edota antzinako doinuak XX. edota XXI. mendeetako jantziekin, bi musika tresnek dituzten kolore guztiak agerian jarriz.

Organoaren txandan organo erromantikoaren tinbre ezberdin eta zoragarriak entzungo ditugu, T.Garbizu, J.M.Beobide eta J.Callaertsen lanen bidez.

Txistuaren txanda denean instrumentu honen potentziala ezagutuko dugu hainbat autoreren konposizioen bidez (T.Garbizu, A.Uría, P.Yanci, E.Gorosarri, R.Lazkano, N.Hakim), gure folklorearen hainbat alderdi erakusten dizkigutenak; hala nola boleroak, lohiak, edota kontradantzak. "Recuerdos del ayer" obraren zati bat ere entzun ahal izango da ikuskizunean; David Rivas konpositore zamoranoak sortutako balada erromantikoa da honakoa, “Garikoitz Mendizabali eskainia”.

*Órgano y txistu, los sonidos del aire... Muchas veces considerados de mundos distintos: la seriedad y la iglesia por una lado y la alegría y la fiesta por otro. Hoy, por el contrario, entrecruzarán sus sonidos conversando y escuchándose mutuamente. Desde música escrita expresamente para ellos hasta melodías antiguas con arreglos de los siglos XX y XXI, poniendo de relieve todos los colores de ambos instrumentos.*

*En las obras de órgano podremos apreciar los diferentes y maravillosos timbres de nuestro órgano romántico Stoltz Frères a través de las obras de T.Garbizu, J.M.Beobide y J.Callaerts.*

*En las obras con txistu veremos el potencial de este instrumento por medio de las composiciones de autores (T.Garbizu, A.Uría, P.Yanci, E.Gorosarri,R.Lazkano, N.Hakim), que nos muestran diversas facetas de nuestro folklore como boleros, fandagos, contradanzas..., además de una obra “Recuerdos del ayer”, balada romántica, estreno mundial, compuesta por el compositor zamorano David Rivas y “dedicada a Garikoitz Mendizabal”.*

**ORGANOA:**

**Tomás Garbizu (1901-1989)**
SEQUENTIA (SOBRE “VICTIMAE PASCHALI”)

**José María Beobide (1882-1967)**
ANDANTE

**Joseph Callaerts (1838-1901)**
TOCCATA, OP. 29

**TXISTUA ETA ORGANOA:**

**David Rivas (1980)**
RECUERDOS DEL AYER (IRAGANEKO OROITZAPENAK)

**Aitor Uria (1973)**
GAUMIN 2
*Andante*
*Vivo*

**Tomás Garbizu (1901-1989)**
EUSKAL SUITEA 2
*Gavota*
*Eibarko kontrapasa*

*Ixil ixilik*
*Baratzeko pikuak*

## TXISTUA:

**Ezezaguna**
BOLERO ANTIGUO

**Pepe Yanci (1917-1985)**
XOXUA

## TXISTUA ETA ORGANOA:

**Eduardo Gorosarri (1889-1947) / Ramón Lazkano (1968)**
HIRU ATALETAKO ALBORADA
*Kontrapasa*
*Zortzikoa*
*Idiarena*

**Naji Hakim,** arreglos **(1955)**
DE LA “BASQUE ANTHOLOGY”
*Kontradantza* (Cadenza: Isidro Ansorena), de **Eusebio Basurko Zabala (1856-1921)**
*Kurruxko,* de **Jose Ignazio Ansorena (1953)**

Abuztuak 6

# Conductus Ensemble: 'Bach ispiluan'

**20:30 | PARROKIAN |** DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA

**Andoni Sierra,** zuzendaria



## Egitaraua:

**Dietrich Buxtehude (1637-1707)**
CANTATA "JESU, MEINES LEBENS LEBEN", BuxWV 62

**Johann Pachelbel (1678-1741)**
CONCIERTO SACRO "WAS GOTT TUT, DAS IST WOHLGETAN", PWV 1226

**Johann Christoph Bach (1642-1703)**
DIALOGUS "HERR, WENDE DICH UND SEI MIR GNÄDIG"

**Johann Sebastian Bach (1685-1750)**
CANTANTA "CHRIST LAG IN TODESBANDEN", BWV 4

## Bach ispiluan:

Ezer ez, edo hobe esan ia ezer ere ez dakigu Bach konpositorearen bizitzako lehen urteei buruz, are gutxiago bere nerabezaro gorabeheratsuko prestakuntzari buruz. Baina dakigun gutxi horretatik, badakigu gauza bat eta Bach-en biografo guztiak bat datoz horretan: autodidakta izan zen funtsean, eta bere ikasleei esaten zien bezala, miresten zituen musikarien partiturak kopiatuz ikasi zuen konposatzen, besteak beste, Johann Christoph Bach, Johann Pachelbel eta Dietrich Buxtehude konpositoreei. Bere osaba Johann Christoph Bachen partiturak kopiatu zituen eta hari buruz honakoa idatzi zuen: "konpositore sakona zen, familiako adierazkorrena". Johann Pachelbelen musika ezagutu eta kopiatu zuen haren aitabitxia zen bere anaia Johann Christophen etxean. Era berean, 400 kilometro baino gehiago egin zituen oinez, Dietrich Buxtehuderekin ikasteko, eta haren musika erabakigarria izan zen bere konpositore bilakaerarako. Kontzertu honetako programa konpositore handi (eta neurri

batean ezezagun handi) horien omenaldia da, askorentzat inoizko konpositore handiena denaren garapenean eragin zuzena izan zuten horiei eskainia.

*Muy poco, o mejor dicho casi nada, es lo que sabemos de los primeros años de la vida de Bach, y aún algo menos de lo que fue su formación a lo largo de su azarosa vida de adolescente. Pero de entre lo poco que sabemos hay algo en lo que coinciden todos los biógrafos de Bach y es el hecho de que fue esencialmente autodidacta, que –tal y como él mismo repetía a sus alumnos- aprendió a componer copiando partituras de los músicos que admiraba, entre ellos, Johann Christoph Bach, Johann Pachelbel y Dietrich Buxtehude. Copió partituras de su tío Johann Christoph Bach de quien dejó escrito que era "un profundo compositor, el más expresivo de la familia", conoció y copió la música de Johann Pachelbel en casa de su hermano Johann Christoph, de quien era padrino, y, viajó más de 400 kilómetros a pie para aprender de Dietrich Buxtehude, cuya música resultó ser decisiva en su evolución como compositor. El programa que seguidamente se presenta es un pequeño homenaje a esos grandes compositores -en gran parte también grandes desconocidos- que de una manera directa influenciaron en el desarrollo del que para muchos es el más grande compositor de todos los tiempos.*

Abuztuak 8

# Musikaldian dantza

**19:30 | ODIETAN**

## FIGHT Lasala





Gizakiak borrokarekin duen harremana primitiboa da. Hau presente egon da denboren hasieratik. Lasalatik borroka bizitzan, oro har, eta dantzan bereziki, funtsezko elementutzat jotzen dute.

*La relación que el ser humano guarda con la lucha es primitiva. Esta ha estado presente desde el inicio de los tiempos. Desde Lasala aprecian la lucha como un elemento fundamental en la vida en general y en la danza en particular.*

## Lasala konpainia:

Lasala, Judith Argomanizek zuzendutako dantza garaikideko konpainia da, eta dantza eta argazkilaritza arloko artistek osatzen dute. Konpainiak hizkuntza fisikoa eta gaur egungo estetika sortzeko etengabeko ikerketa du ardatz, taldearen kezkak aintzat hartu eta islatu nahian. 2013an sortu zenetik, nazio mailako eta nazioarteko hainbat jaialditara gonbidatu dute eta programa artistiko ugariren babesa jaso du.

*LASALA, compañía de danza contemporánea dirigida por Judith Argomaniz, se compone de artistas del ámbito de la danza y la fotografía.La compañía se centra en la continua indagación por generar un lenguaje físico y una estética actual, queriendo atender y reflejar las inquietudes del equipo. Desde su creación en 2013, ha sido invitada a múltiples festivales nacionales e internacionales. También ha sido apoyada en numerosos programas artísticos.*

# **NIRE AZALEAN ARROTZ** Myriam Perez Cazabon





PRESENTZIA kontzeptuari dagokionez, pieza honen oinarria zera da, izan gabe egotea. Pertsona baten presentzian gertatzen den aldaketari buruzko gogoeta da, aldaketa noiz eta pertsona horren barne-mundua hausten denean eta arrotz sentitzen dituenean bere izaera eta bere egoteko era, ordura arte baleko zitzaizkionak. Presente egoten jarraitzen du pertsonak, ala absentzian murgiltzen da? Eta pertsonak absente badirudi, non geratzen dira haren izaera eta egoteko era? Nola ageri da hori gorputzaren fisikotasunean?

*En cuanto al concepto de LA PRESENCIA, la base de esta pieza es estar sin ser. La obra es una reflexión sobre los cambios en la presencia de una persona; en el momento del cambio, cuando se derrumba el mundo de interior de una persona y siente como extrañas su modo de ser y el modo de estar,rasgos que hasta ese instante le eran suficientes. ¿La persona sigue estando presente, o se mueve en la abstencia? ¿Y si la persona parece estar abstente, dónde quedan su modo de ser y su modo de estar? ¿Cómo se visibiliza eso en el físico del cuerpo?*

## Myriam Perez Cazabon:

Oiartzunen jaio zen 1981an eta Irunen bizi da egun. Dantza Garaikideko goi-mailako ikasketak egin zituen CODARTSen (Rotterdam). Sorkuntza eta interpretazioa dantzaren esparru pedagogikoarekin uztartzen ditu 2004az geroztik. Kezkek eta interesek bultzatuta eta lengoaia koreografiko propioan sakontzeko beharrak bultzatuta, bere konpainia sortu zuen 2016an.

*Nacida en Oiartzun (1981) y residente en Irun, se inicia en la danza entre Donostia-San Sebastián e Irun. Realiza estudios superiores de Danza Contemporánea en CODARTS (Rotterdam). Compagina la creación, la interpretación con el ámbito pedagógico de la danza desde 2004. Impulsada por inquietudes e intereses personales y la necesidad de ahondar en un lenguaje coreográfico propio, crea su propia compañía en 2016,*

Abuztuak 9

# Oreka TX

**19:30 | HERRI ESKOLAKO FRONTOIAN**



## Koklea:

Koklea Oreka TX bandaren proiektu berria da. Zientziak natura bere lengoaiaren bitartez interpretatzen duen bezala, Oreka TX txalapartaz baliatzen da bere ingurumenaren irakurketa egin eta partekatzeko.

Boskoteak azken urteetan egin duen ibilbide musikalaren emaitza islatzen da lan honetan, berezko estiloan sakonduz eta soinu tresna organiko eta naturalak erabiliz lengoaia garaikide batean.

*Koklea es el nuevo proyecto de la banda Oreka TX. De la misma forma que la ciencia interpreta la naturaleza a través de su lenguaje, Oreka TX usa la txalaparta para hacer y compartir la lectura de su medio ambiente.*

*En este trabajo se refleja el resultado de la trayectoria musical del quinteto en los últimos años, profundizando en el estilo propio y utilizando instrumentos sonoros orgánicos y naturales en un lenguaje contemporáneo.*

## Oreka TX:

Oreka TX Harkaitz Martinez de San Vicente eta Igor Otxoak sortu zuten 1997. urtean eta orduz geroztik dabiltza txalapartak dituen aukerak ikertzen eta zabaltzen, txalapartaz gozatzen eta goza arazten, azken finean.

Gaur egun Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte txalapartariak eta Mixel Ducau, Iñigo Egia eta Juan Jose Otxandorena musikariek osatzen dute Oreka TX taldea.

Parte hartu izan duten festibaletako ikuslegoa musika tresna honen ikusgarritasunak txundituta geratu izan da, baita taldeak jotzerakoan duen energiagatik ere. Bost kontinenteetako tauletan jo eta txalaparta gure mugetatik kanpoko ikuslego eta espezializatutako komunikabideen artean ezagutzera eman dute.

Oreka TX-ek hainbat artisten diska grabaketan parte hartu eta zuzeneko elkarlanak egin dituzte. Phil Cunningan, Ara Malikian, Manu Dibango, Aziza Brahim, Motoko Hirayama, Silvia Iriondo, Carlos Nuñez, Rai National Synphony Orchestra, Hakon Kornstad bezalako izen handiekin kolaboratu dute.

Musika ezberdinekin fusionatzeaz gain, diziplina ezberdinak uztartzea ere dute dibertimentu, bai dantza, zein zirko, ikus-entzunezko, herri kirol eta pizgarri den edozein elementurekin ikuskizunak eraikitzea dute xede, hainbat eta hainbat kolaboratzaile zoragarrirekin batera.

Kolaborazio, sari eta errekonozimenduen gainetik, Oreka TXentzat plazera izan da beti txalaparta bidaide izanda, munduan zehar euskal unibertso anitz eta koloretsua zabaltzea.

*Oreka TX fue fundada en 1997 por Harkaitz Martínez de San Vicente e Igor Otxoa y desde entonces están investigando y difundiendo las posibilidades de la txalaparta, disfrutando y haciendo disfrutar de ella.*

*En la actualidad el grupo Oreka TX está formado por los txalapartaris Harkaitz Martínez de San Vicente y Mikel Ugarte y los músicos Mixel Ducau, Iñigo Egia y Juan José Otxandorena.*

*El público de los festivales en los que han participado ha quedado impresionado por la espectacularidad de este instrumento, así como por la energía que tiene al tocar el grupo. Tocando en tablas de los cinco continentes y dando a conocer la txalaparta entre el público y los medios especializados fuera de nuestras fronteras.*

*Oreka TX ha participado en la grabación de discos de varios artistas y ha colaborado también en varios directos. Han colaborado con grandes nombres como Phil Cunningan, Ara Malikian, Manu Dibango, Aziza Brahim, Motoko Hirayama, Silvia Iriondo, Carlos Núñez, Rai National Synphony Orchestra, Hakon Kornstad.*

*Además de fusionarse con diferentes músicas, también se divierten combinando diferentes disciplinas, con la danza o participando en espectáculos de circo, audiovisuales, deporte rural y cualquier elemento de estímulo, junto a un sinfín de maravillosos colaboradores.*

*Por encima de colaboraciones, premios y reconocimientos, el grupo remarca que ha sido un placer difundir por el mundo un universo vasco variado y colorista con la txalaparta como compañera de viaje.*